

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

3610

EBAZPENA, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.

Zuzenbide Fakultaterako Kargudunaren idazkaria (Ikastegiak) lanpostua betetzeko deialdian, ezarritako epean ez denez eskaerarik aurkeztu, eta deialdia erabakiaren laugarren oinarria betetzeko, eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen arabera (2023ko urtarrilaren 6ko BOE). Gerentziak, UPV/EHUko errektoreak 2021eko urtarrilaren 28an hartutako erabakia, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena (2021eko otsailaren 12ko EHAA) erabiliz, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Behean azaltzen den lanpostuaren prozedura amaitutzat jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea.

Izena: Kargudunaren idazkaria (Ikastegiak).

Erref.: F 370.

Eskala: Administraria / Administrari laguntzailea.

Taldea: C/D.

Zenbatgarrena: 8.

Maila: 18.

Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigorrezko data: 1995eko urtarrilaren 31.

Langunea: Zuzenbide Fakultatea.

Campusa: Gipuzkoa.

BE:

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean. Nahiago bada, administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Administrazio Auzietako Epaitegi egokian; horretarako hilabete bi egongo dira, Ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasita. Hori guztia, Unibertsitateko Estatutuetako 160. artikuluan, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 8. eta 14. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioa, 2023ko uztailaren 6a.

UPV/EHUko gerentea,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.